



❖ INMAKULADA IKASTETXEA

Eguberriko jaialdia gaur Sandiusterrin

Gabonak direla eta, Inmakula ikastetxean Eguberriko jaialdia antolatu dute. Jaialdia gaur arratsaldean izango da, 15:30etan hasita, Sandiusterrin. ||

❖ INSTITUTUKO GURASO ELKARTEA

Gaur bateratzearen inguruko bilera

Hernaniko Institutuko, Karmelo Labakako eta Lanbide Hezkuntzako guraso elkarteak antolatuta, bilera informatiboa izango da gaur, bertako ikasleen gurasoei zuzendua. Bileran hitz egingo dute Bigarren Hezkuntzako bateratzearen inguruan. Arratsaldeko 19:30etan izango da, institutuko Agustin Iturriaga eraikinean, arratsaldeko 19:30etan. Gurasoei dei egin diete bileran parte harzeko. ||

❖ LANGILE IKASTOLA

Hezkuntza proiektua aukeratzeko eskubideen alde kontzentrazioa bihar

Langile ikastolak kontzentrazioa deitu du bihar arratsalderako, *Hezkuntza proiektua aukeratzeko eskubideen alde inposaketarik ez!* 4garren *Lerroari bai!* lemapean. Pilotalekuko kiroldegia aurrealdean izango da, 18:00etan. Bertan, sinadura bilketa ere egingo dute. ||

❖ ATEZ ATEKOA

Azken Plenarioa bihar Sandiusterrin

Atzo sagardotegiaren izan zuten atez ateko hondakin bilketaren inguruko bilera, problematika zehaztu, ikusi eta eztabaidatzeko. Bihar berri, Sandiusterrin izango da azken Plenarioa, 19:30etan. Jakinarazi dute, hilaren 22koa deskonbokatuko egin dela, ez baitute behearrezkoa ikusten. ||

EREan dauden enpresa eta langileek formatzeko laguntza izango dute

Hernaniko Institutuak jakinarazi du laguntza izateko, enpresek langileentzako formazio plana aurkeztu behar dutela. Laguntza eskatzeko azken eguna abenduaren 30a da.

HERNANIKO Karmelo Labakako institutuak adierazi du, EREan dauden enpresa eta langileek formatzeko aukera izango dutela, horretarako laguntza emango baitu Eusko Jaurlaritzako Giza Gaierako Sailak.

Laguntza eskuratu ahal izateko, enpresek langileentzako formazio plana aurkeztu behar dute. Planeari sar daitezke bai momentu horretan EREan dauden langileak eta baita ez daudenak ere.

Orduko 13 euroko laguntza Formazioa jasoko duen langile bakoitzak, orduko, 13 euroko laguntza jasoko du. Eta horrez gain, EREan dauden langileek beste 4 euro jasoko dituzte jasotako formazioagatik.

Enpresak formazio planik izan ez arren, laguntza eskatu daiteke

EREan dauden langileen enpresak formazio planik egingo ez balu, langileak



Informazio gehiagorako 943 55 11 88 eta 943 55 19 59 telefonoak jarri dituzte.

berak 4 euroko laguntza eskatu dezake; baina laguntza jasotzeko, langileak Hobetuz 2009ko kurtsoren bat egin beharko luke.

Laguntzak eskatzeko azken eguna abenduaren 30a

izango da, bai enpresentzat eta baita langileentzat ere.

Hernani eta inguruko enpresei deia

IES Hernaniko deia luzatu die Hernani eta inguruko he-

rriei, nahi izanez gero, laguntzak eskatzeko. Eta informazio gehiago nahi izanez gero, bi telefono ere jarri dituzte: 943 55 11 88 eta 943 55 19 58. Jesus Ezkerrogatik galdetu behar da. ||

Hernaniko Musika Eskolak hileroko emanaldia emango du gaur, Biterin

Kontzertuan Lina Sinais emakume imaginarioari emango diote ahotsa. Horretan arituko dira Mireia Otzerinjauregi, Sorkunde Idigoras, Luisa Brito eta Hasier Oleaga.

HERNANIKO Musika Eskolak hileroko kontzertua antolatu du gaur arratsalderako, Biterin kultur etxean, 19:30etan. Gaurko kontzertuan Lina

Sinais emakume imaginarioari emango diote ahotsa, eta besteak beste, beraiek egindako abestiak kantatuko dituzte.

Lau abeslarien lana Lena Sinaisen interpretazioan lau musikari arituko dira. Ahotsa eta pianoan Mireia Otzerinjauregi; pianoa, kontzertina,

melodikoa, gamba biola eta ahotsa Sorkunde Idigorasek jarriko ditu; kontrabaxua eta ahotsa Luisa Britok; eta bateria eta ahotsa Hasier Oleagak. ||

arrosak
edergintza

Antziola 9
Tel. 943 33 02 89

'Cavita'ztoa
Liposukzioaren alternatiba

- Aparatologian azken berrikuntza - Tratamendu pertsonalizatuak

AZAROAN ETA ABENDUAN PREZIO BEREZIAK
Hartu ezazu bonoa orain eta ondo datorkizunean egin ezazu tratamendua

Zatuz eta jaso ezazu behar duzun informazio guztia!

TERMO SALUD
cavitación

gerria
6 sesio
2,5 cm

abdomena
6 sesio
1,6 cm

izterrak
6 sesio
2,8 cm

OINDI

taberna

NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509

mikel armendariz

proiektu eta instalazio elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

☎ TELEFONOAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalarri anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
✚ FARMAZIAK ● **Egunez:** **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077 ● **Gauz:** **Castilla** Urbieta 7 - 943 552941

EGURALDIA
GAUR Goizean ateri egongo da, baina holz egingo du eta izotza izango da. Arratsaldean fronte berri batek prezipitazioa ekarriko du. Tenperaturaren ez da aldaketarik izango.
BIHAR Goizean prezipitazioak espero dira eta elur moduan egin dezake 800 m-tik behera. Arratsaldean atertu egingo du, baina goxotasunik ez da izango. (euskaime)

❖ BELKARA AUZO ELKARTEA - Gabonetako festa



Julio eta Ricardo eta Isidro eta Cano mus eta tuteko txapelkunak Gabonetako festan. Aurten ere ez dute hutsik egin Belkara auzo elkarteak antolatutako Gabonetako mus eta tute txapelketek. Honakoa izan da aurtengo sailkapena: musean, Julio eta Ricardo izan dira txapelkunak; Carlos eta Evaristo azpitxapelkunak; eta Jesus eta Agustin hirugarrenak. Tutean berriz, Isidro eta Canok lortu zuten lehenengo postua; Alberto eta Eliasek bigarrena; eta Teo eta Danik hirugarrena. Horrez gain, etxeokandrea saria eman zitzaion, Joxean Martinez, Fernando Gaspar eta Manuel Morali. ||

❖ ARRASATEKO AKORDEOI LEHIAKETAK 2009

Bost urrezko domina eta lau zilarrezko, Hernanira. Abenduaren 5etik 8ra bitarte, Arrasateko Akordeoi Lehiaketak 2009 izan zen Arrasaten, eta Hernani Musika Eskolako akordeoi ikasleek sekulako emaitzak lortu zituzten: bost urrezko domina eta lau zilarrezko. Adinaren arabera, 10 urte arte, A hastapenan, Leire Pedro eta Eneko Sotak urrezko domina lortu zuten eta Nerea Garin eta Ainhoa Larrañagak zilarrezkoa. Eta A mailan, Nagore Torresek urrezkoa lortu zuen. 12 urte arte, B hastapenan, zilarrezko domina lortu zuten Maddi Arrue eta Alex Zuzak. B mailan, berriz, Ariane Gaztañagak urrezkoa eta Uxue Lopezek zilarrezkoa. 15 urte arte, C hastapenean, Ane Macior eta Maddi Pedrok lortu zuten urrezkoa eta 12 urte arte, Ganbara Musikan, urrezko domina, Ariane Gaztañaga, Uxue Lopez eta Sara Otaegi hirukoterentzat izan zen. Horrez gain, Otaegi bigarren geratu zen infantil mailan (13 urte arte). ||



12 urte arte, B hastapenan, zilarrezko domina lortu zuten Maddi Arrue eta Alex Zuzak. B mailan, berriz, Ariane Gaztañagak urrezkoa eta Uxue Lopezek zilarrezkoa. 15 urte arte, C hastapenean, Ane Macior eta Maddi Pedrok lortu zuten urrezkoa eta 12 urte arte, Ganbara Musikan, urrezko domina, Ariane Gaztañaga, Uxue Lopez eta Sara Otaegi hirukoterentzat izan zen. Horrez gain, Otaegi bigarren geratu zen infantil mailan (13 urte arte). ||

👉 Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Julen Lizaso agurgarria:

Utzi izeaiguzu joan den ostiralean El Diario Vascon argitaratu zen zure idatziari erantzuten. Bertan esaten zenuen, hondakin bilketaren egungo sistemarekin jarraituta eta bosgarren kontenedorea jarrita, bikoitza kostatuko zaigula atez ateko bilketa sistema baino.

Ez dakigu zein izango den garestiagoa, baina ezagututa katalanek duten fama dirua dela eta, ziur sakon aztertu dutela kostuari dagokionean. Gu, berriz, besteentzat beti izan gara *harroputz* xamarrak diru kontuetan, *botxoko* bizilagunetaz esaten den bezala.

Guk bakarrik dakigu, aipatutako Vilassar de Marren bertan bizi den eta jasan duen pertsona batek esanda, bertan gutxi iraun duela sistemak; eta baztertu badute, zerbaitengatik izango da.

Irakurri dugunaren arabera, badirudi sistema demokratikoa den erreferendumaren aurka zaudela; izan ere, hernaniarrei ahal zaie eskubide hori *oparitzea* galarazi, zuk zure idatzian diozun bezala, orain arte izan diren bileretan, parte hartzea eskasa izan delako (kopla horiekin ez etorri gugana).

Niri ere gustatuko litzaidake

aipatu dituzun hernaniar horiek guztiek kontziente izanda bozkatzea. Baina badakigu jende askok paso egiten duela halako gaietaz, eta halaxe dohakigu antzeko kontuetan ere, eta ziurrenik ez dute bozkatu ere egingo. Agian hobeto joango zaizue erreferendum eginda, izan ere, oso *kontzientziatuta* edo *interesatuta* zaudetenak bakarrik joango zarete bozkatzera.

Agur bat erreferendum egongo balitz bozkatzera joango liratekeen batzuen partetik.

**Jesus Maria Mugica
Gerardo Munduate
eta 17 sinadura gehiago**
(*Erredakzioan euskeratua)

❖ OSIÑAGA AUZO ELKARTEA

Kuota kobratzera pasako dira asteburuan

Urtero abenduan egin ohi den bezala, Osiñaga auzo elkarteok etxe etxe pasako dira kuota kobratzera. Asteburu honetan izango da. Urteko kuota 10 eurokoa da, eta euro bateko loteriaren partizipazioa dakar. Horrez gain, Gabonetako saski bat zozketatuko dute. Etxean egoteko asmorik ez dutenei eskatu diete ahal izanez gero, dirua bizilagunari uztea. ||

Mus txapelketa igande arratsaldean

Igandean Auzoko Mus Txapelketa izango da, 18garren aldiz. Arratsaldeko 16:00etan hasiko da Olaizola sagardotegian. Izena bertan eman behar da, txapelketaren egunean. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu. Sari nagusia bi txerrikume izango dira. ||

❖ PAUSOAK-GUREAK ELKARTEA

Santo Tomas feria bihar ospatuko dute

Pausoak-Gureak ezinduen elkarteak biharko antolatu du Santo Tomasetako feria. Zabalegiko pabiloi batean izango da, goizeko 11:00k inguruan hasita. Bertan jarriko dituzten postuetan izango dira barazkiak, oiloak, arrautzak eta artisauro produktua. Txorixoa eta txistorra jateko aukera ere izango da. Elkartetik dei egin die herritarrei bertara joateko. ||

◆ MUS TXAPELKETA

Txapelketako partida bat gaur Elur Txorin

Elur Txori elkarteak mus txapelketa jokatzeko ari dira eta gaur honako partida jokatuko da: Joxan-Paco/Paco-Joxe Ramon. ||

Atez ateko zalantzak argitzen

Organikoa jasotzeko bi kubo marroi horiek ordaindu beharko dira?

Ez. Udalak doan banatuko ditu.

Bidali zure galdera helbide honetara: info@hernaniatezate.net
Galde-erantzun guztiak webgunean: www.hernaniatezate.net



❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Alokatzeko edo erosteko etxe txiki baten bila nabil, Hernanin edo inguruetan (berritua edo ez).
Deitu: 943 33 11 83 - 656 721 492

Etxe bila nabil, 2-3 gela dituen. Lehenbailehen sartzeko. Pertsona arduratsua naiz.
Deitu: 638 349 760

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, prezio egokituak eta pertsonalatuak. Gaztetzeko tratamendua "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzalea. **Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.**

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,...: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

BIHAR, SANDIUSTERRIn

19:30 > Hirugarren plenarioa

BERTAN BEHERA

Abenduak 22
Laugarren Plenarioa



hernani
osasuna atez ate



www.hernaniatezate.net